

NIRE LAGUNIK HOBERENA

Ane, nire lagunik hoberena da.

Egunero bezala, eskolatik bueltan, merendatu eta kalera atera da lagunekin jolastera. Etxera itzuli denean, bere gelan pijama jantzi bitartean, ama gerturatu zaio. Gaurko arratsaldea ez da beti bezalako izan. Ane, handitzen ari da eta arraro sentitzen da. Neska handiek ez omen dute jolasten, hori diote behintzat bere lagunek. Amak, lasai egoteko esan dio, adinaren gauzak direla. Baina horrek, ez du Ane lasaitu.

Afaldu eta pixka bat irakurri ondoren, nirekin ohera sartu da. Gaur, txikitan egiten zuen bezala, indarrez besarkatu nau. Lasai Ane, neska handiek ere noizbehinka panpinak besarkatzen dituzte eta.